1 / 6
Zenbaki horrek produktuaren arriskua adierazten du: 1/6 zenbakiak arriskurik txikiena adierazten du eta 6/6 zenbakiak arriskurik handiena .

Kreditu Erakundeen Gordailuak Bermatzeko Funtsari atxikita dago LABORAL Kutxa, 2011ko urriaren 14ko 16/2011 Errege Dekretuan aurreikusitakoari. Gaur egun, 100.000 euroko gehieneko zenbatekoa bermatzen dio funts horrek gordailugile bakoitzari. Adierazle hori EPERAKO GORDAILUEI eta KONTUEI dagokie.

Inbertitutako kapital osoaren edo zati baten diru-itzultzea, erreskatea edo itzulketa aurreratua eginez gero, komisioak edo zigorrak ordaindu beharko dira.

Likidezia-alerta EPERAKO GORDAILUETARAKO da.

INBERTSIO-FUNTSEK arrisku-maila berezia dute, eta agiri honetan aipatzen diren kontu eta gordailuena baino handiagoa izan daiteke.

LABORAL Kutxaren azalpena...

PUBLIZITATEA

# AURREZKIA vs INBERTSIOA

Gauza bera **ematen dute...**



... baina **ez dira**

- **Berehalakoan behar ez dugun diruarekin** dute zerikusia.
- **Gaur ahalegina egitea** eskatzen dute, **bihar etekina lortzeko.**

Batak **dirua metatzea** bilatzen du, **gastu eta ustekabeei aurre egiteko.**



Besteak, berriz, **dirua haztea** du helburu.

Bietatik zein komeni zaigun jakiteko, **helburua zehaztu** behar dugu, eta hauek aztertu:

- LEHENTASUNAK
- ERRENTAGARRITASUN-HELBURUAK
- EPEMUGA
- ARRISKUAREKIKO TOLERANTZIA



Horrela, **gure diruari zer datorkion ondoen** erabaki ahal izango dugu.

## AURREZKIA | INBERTSIOA

| AURREZKIA | | INBERTSIOA |
|---|---|---|
| Dirua **geroko gordetzea.** | HELBURUA | Dirua **hazaraztea**. |
| **Ezusteetarako koltxoia** sortzea edo **epe labur nahiz ertaineko** proiektuak finantzatzea. | ASMOA | Erosahalmenaren galera konpentsatzea edo **ahalik eta etekinik gehien sortzea,** galerak ekar ditzakeen **arrisku-maila jakin bat hartu** arren. |
| **Arriskua oso txikia da,** baina errentagarritasuna ere bai, eta, gehienetan, **ez du inflazioa konpentsatzen.** | EZAUGARRIAK | **Inflazioa konpentsatzeko aukera** ematen du, **arrisku handiagoak** hartu behar badira ere. |
| **Segurtasuna lehenesten du** errentagarritasunaren aurrean. | LEHENTASUNAK | **Errentagarritasuna lehenesten du,** nahiz eta arrisku batzuk hartu. |
| **Produktu errazak eta arrisku txikikoak** dira, zuk zeuk kontratatzeko modukoak. | EZAGUTZAK | Inbertsioei buruzko oinarrizko ezagutzak behar dira, **eta komenigarria izan daiteke aditu bat ondoan izatea.** |
| **Aurrezki-kontuak edo eperako gordailuak** kontratatuz egiten da. | PRODUKTUAK | **Finantza-aktibo edo -produktuak** erosi behar dira. |

HAU DA...



**Zure aurrezkiak arriskuan jarri nahi ez badituzu** edo epe laburrean beharko dituzula uste baduzu, ziur aski hobe duzu **AURREZTEA.**



**Errentagarritasuna bilatzen baduzu, nahiz eta bermatuta ez egon, eta zure dirua berehalakoan behar ez baduzu,** aukera ona izan daiteke **INBERTITZEA.**

Eta, hori esanda,



## NOLA AUKERATUKO DUZU GEHIEN KOMENI ZAIZUN PRODUKTUA?

| AURREZTU EGIN NAHI DUT | INBERTITU EGIN NAHI DUT |
|---|---|
| **EPE LABURRA** | |
| **AURREZKLIK &**<br>**Aurrezki-kontu** horrek erabateko malgutasunez aurrezten lagunduko dizu, epe laburreko helburuetarako (bidaiak, erosketak eta abar).<br>Gehiago jakiteko> | Epe laburreko inbertsioak arrisku handiak ekar ditzake; beraz, **LABORAL Kutxan ez dizugu aukera hori gomendatzen.** |
| **EPE ERTAIN EDO LUZEA** | |
| **NET>GO AURREZKIA**<br>**Gordailu** hau ezin hobea da hilez hil koltxoi bat sortuz joateko eta **zure aurrezkien errentagarritasuna eroso eta erraz handitzeko.**<br>Gehiago jakiteko> | **INBERTSIO-FUNTSAK**<br>Askotariko konbinazioak daude **FUNTS KONTSERBADOREEN** eta **ARRISKU HANDIAGOKO FUNTSEN** artean. Errentagarritasuna lortzea lehenesten dute, betiere inbertitutako kapitala galtzeko arriskua onartuta.<br>**Egokiak dira bai metatutako kapitala inbertitzeko,** bai **hilero ekarpen txikiak egiteko.**<br>Gehiago jakiteko> |
| **ETXEBIZITZA KONTUA**<br>Ohiko **etxebizitza erosi edo birgaitzea** da aurrezki-kontu horren helburu berezia.<br>Gehiago jakiteko> | |
| **PLAZO NET**<br>**Zure gordailua zuzenean berrituko da muga-egunera iristen denean,** eta haren errentagarritasun berria aldez aurretik ezagutaraziko dizugu.<br>Gehiago jakiteko> | **BALORE SALEROSKETA**<br>Zerbitzu horren bidez, **zure kabuz erosi ahal izango dituzu finantza-produktuak** (batez ere akzioak).<br>Gehiago jakiteko> |

**AURREZKIEI ERRENTAGARRITASUNA ATERATZEA** BADA ERE INBERTSIO-FUNTSEN ETA BALORE-SALEROSKETAREN HELBURU NAGUSIA, KONTUAN IZAN BEHAR DUGU **IRABAZIAK EZ DAUDELA BERMATUTA,** ETA, BERAZ, DIRUA GAL DEZAKEGULA. **HALABER, LITEKEENA DA INBERTITUTAKO KAPITALA ERE GALTZEA.**

KONTUAN HARTZEKOA DA, **HALABER, AURREZKI-PRODUKTUEN ERRENTAGARRITASUNA GEHIENETAN EZ DELA NAHIKOA IZANGO INFLAZIOA KONPENTSATZEKO.**



Gogoan izan **AURREZTEA eta INBERTITZEA bateragarriak** direla, zure **epe, helburu** eta **beharren** arabera.

KONTSULTATU INBERTSIO-FUNTSEN INFORMAZIO-LIBURUXKA ETA INBERTITZAILEARENTZAKO FUNTSEZKO DATUEN AGIRIA GURE WEBGUNEAN, CNMV-N ETA GURE EDOZEIN BULEGOTAN.